



Gaia: 4/2016

EBAZPENA, (...)KO ZUZENDARI NAGUSI DEN (...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETAKO GAIA BAITA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA (...) ERAKUNDEAREN ARTEAN SINATUKO DEN HITZARMENAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA BERE ZUZENDARITZAPEAN EGITEKO AUKERA, ERAKUNDE HORREN LEHENDAKARIA INTERESATUAREN KOINATUA IZANIK

I.- KONTSULTA

1.- 2016ko uztailaren 1ean foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) mezu elektronikoa bidali zion interesdunak, (...)ko zuzendari nagusiak. Bertan, iritzia eskatzen dio EEBri, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta (...) erakundearen artean sinatzea aurreikusten den hitzarmena bere zuzendaritzapean kudeatu eta jarraipena egiteko aukeraren inguruan, jakinda erakunde horren lehendakaria interesdunaren koinatua dela.

2.- Mezu elektronikoa interesdunak jakin nahi du ea zuzentasunaren ikuspegitik bateragarria den hitzarmen horren kudeaketa eta jarraipena bere zuzendaritzapean egitea, hots, (...)ko Zuzendaritzatik, eta, hala izanez gero, ea hitzarmen horrekin zerikusia duten gaietan parte hartzetik abstenitu beharko lukeen.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horrekin batera, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kode bat onartu zen. Kode horrek foru kargu publikoek eta asimilatuek bete eta sustatu behar dituzten arauak ezartzen ditu, beren funtzioak eta jarduera publikoak betetzean, eta hala dagokionean, baita esparru pribatuko jarduerak egitean ere, horiek jardunean ari diren erakundearen irudia kaltetu badezakete. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeko helburuarekin, erakundearen irudia babestuz.

2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak zortzi balio –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, bizikidetzeta eta errespetua- eta zortzi printzipio aipatzen ditu: lidergo partekatua eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balio eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horiek osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezzen interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkieten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sisteman aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzeri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, eta baita Foru Administrazioaren eta beronen foru sektore publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gainean ere, hala badagokio.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak, 3.b) artikuluan xedatzen du ezen EEBri dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 1.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eskatzaileari aplikatu dakioke

III. ERAKUNDEKO ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Planteatzen den kontua da ea (...)ko Zuzendaritza Nagusiak egin dezakeen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta (...) erakundeak sinatuko duten hitzarmenaren kudeaketa eta jarraipena, jakinda erakunde horren lehendakaria interesdunaren koinatua dela, eta



ea, hala izanez gero, (...) jauna hitzarmen horrekin zerikusia duten gaietan parte hartzetik abstenitu beharko litzakeen.

2.- (...) izaera pribatuko erakunde zientifiko kulturala da; (...)k, euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa.

(...) erakundearen baliabide ekonomikoak datoz erakunde sortzaileek –(...)k–, erakunde babesleek –hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak edo Akitaniako Eskualde Kontseiluak, Espainiako Gobernuak eta Europako Batzordeak–, eta beste edozein erakunde fisikok edo juridikok, publiko zein pribatuk, egindako aurrekontu esleipen izendunetatik eta era guztietako ekarpenetatik, I+G+b proiektuetara edo proiektu kulturaletara bideratutako diru laguntzetatik, nahiz dohaintzak edo legatuetatik; eta baita ere bazkideen kuota eta ekarpenetatik, nahiz erakundearen zerbitzu eta argitalpenak saltzetik eta bere jardueren bidez lortutako sari eta irabazietatik (estatutu sozialen 8. artikulua).

3.- Nahiz eta ez ezagutu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta (...) erakundearen artean sinatuko den hitzarmenaren edukia, bistakoa da horrelako hitzarmenen eguneroko kudeaketan erabakiak hartu behar izaten direla, eta are gehiago, kasu honetan bezala, interesduna hitzarmenaren kudeaketaz eta jarraipenaz arduratu behar duen arloko zuzendaria bada.

Aztertzeko ea interesduna arduratu daitekeen hitzarmenaren kudeaketa arruntaz eta jarraipenaz, lehenik eta behin ikusi behar dugu ea Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erkideari buruzko 30/1992 Legeak 28.2 artikuluan zerrendatu eta arautzen dituen abstentzio arrazoietakoren bat gertatzen den:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaien edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa

izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritza.

- c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritu izana.
- e) Gaiaren zerikusia zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izana.

Kasu honetan, (...) erakundearen lehendakaria interesdunaren koinatua da; beraz, 28.2.b) artikuluan ezarritako abstentzio arrazoia gertatzen da, bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna duelako berarekin. Hori horrela, interesdunak (...) erakundearekin zerikusia duen edozein gaietan parte hartzeari uko egin behar dio, ez soilik aipatu hitzarmenarekin lotutakoetan.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da abstentzio eta errekusatze arrazoi objektiboen xedea dela bermatzea neutraltasun printzipioa, zerbitzu publikoak interes partikularren eta interes orokorren arteko gatazka orotatik salbu mantentzeko Administrazioak inpartzialtasun eta neutraltasun obligazioak bete behar ditu, eta printzipio horiek betetzeko daude, hain zuzen ere, abstenitzeko eta errekusatzeko teknikak. Horrek guztiak Konstituzioaren babesa du, 103. artikuluan jaso baita. Kontuan hartu behar da abstenitzeko obligazioak Herri Administrazioen zerbitzura dauden agintari eta langileei eragiten diela, eta prozeduran parte hartzen duten guztietara iristen dela; beraz, ez die eragiten soilik erabakiak hartzen dituzten horiei, baita haien aholkulariei ere, eta nolabait prozeduran parte hartu dutenei ere, nahiz eta mekanikoki edo mendekotasun egoeragatik izan. Hori guztia hala da, nahiz eta azken erabakian parte hartze handiagoa edo txikiagoa izatea kontuan hartu daitekeen, balioesteko ea abstenitzeko arrazoiren bat duen norbaitek parte hartzeak zer neurritan eragin dezakeen prozedura bati amaiera ematen dion egintza administratiboa baliogabetzea. Inpartzialtasun hori lortzeko, eta bermatzeko inpartziala izateaz gain itxura hori ematen duela, abstentzioei eta errekusazioei buruzko araudi bat dago, eta horren arabera funtzionario eta agintariak debekatuta dute parte hartzea beren inpartzialtasuna zalantzakoa izan daitekeen espedienteetan.

Horrez gain, erakundearen zuzentasunarekin lotutako jokabide arauak aplikatu behar zaizkio, zehazki Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu publikoen eta langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d), 3.5.a) eta 3.5.b) arauak.

Batetik, 3.4.d) arauak xedatzen duenaren arabera, interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin



partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere

Bestetik, 3.5.a) eta b) arauak jasotzen dute ezen foru kargu publikoek objektibotasunez eta interes orokorren zein herritarren interesen alde jardun beharko dutela beren jardura publikoetan, eta, horretarako, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dutela edozein jardura susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko zein zeharkako onura sor diezaieketela badirudi.

Gauzak horrela, kasu honetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 28.2.b) artikuluan aurreikusten den abstentzio arrazoia gertatzeaz gain, uler daiteke interes gatazka bat ere badagoela, 3.4.d) arauan finkatutako baldintzetan eta, gainera, kontuan harturik zuzendari karguan aritzean saihestu egin behar dela modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate publikoari zuzeneko zein zeharkako onura sor diezaiekeela dirudien jardunbide eta jardura oro, EEB honen iritziz interesdunak ez du parte hartu behar (...) alderdi interesatua den gaietan, betetzeko, batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua, eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Lehena.- (...)ko zuzendari nagusi (...) jaunak ez du parte hartu behar (...) alderdi interesatu den gaietan, ez eta bere interes zirkuluan eragin zuzena edo zeharkakoa izan dezaketen gaietan, kontuan hartuta, batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua, eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak.

Horretarako, abstentzio idatzia aurkeztu behar dio nagusi hierarkiko hurrenari.

Bigarrena.- Abstentzioak Gipuzkoako Foru Administraziooko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak exijitzen dituen berme guztiak bete ditzan, ebazpen honen lehenengo apartatuan aipatzen diren gaiak hierarkikoki interesatuaren mende ez dauden organoek kudeatu eta ebatzi behar dituzte.

Donostian, 2016ko uztailaren 11an.

Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria

Imanol Lasa Zeberio